



EBAZPENA, HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAK ARAUTZEN BAITU EUSKAL HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAK NOLA EMANGO DIZKIEN IKASTETXE PUBLIKOEI ETA ITUNPEKO IKASTETXEEI IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUTEN BEHAR DITUZTEN BALIABIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikasleen aniztasunari erantzuteko neurri ugari hartu behar dira, ikasleek parte hartzeko eta ikasteko dituzten oztopoak gainditu ditzaten eta, azken batean, eskola-arrakasta lor dezaten.

Aniztasunari erantzutearekin lotutako baliabide jakin batzuen premiak baliozkotzeko irizpide funtsezkoak nahiz prozedurazkoak antolatu eta ezartze aldera,

EBAZTEN DUT

1. artikulua. - Araututako baliabideak

Ebazpen honetan baliozkotzea edo adostasuna arautzen da, honako baliabide hauen kuantifikazioari dagokionez:

- 1) Hezkuntza berariaz sendotzeko proiektuak (HBSP)
- 2) Pedagogia terapeutikoko irakasle espezialistak (PT)
- 3) Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE)
- 4) Curriculum anitzeko programak (CA)
- 5) Eskolatze osagarriko programak (EOP)

2. artikulua.- Araubide juridikoa

Erregulazio honen xede diren baliabideak arau hauetan jasotako araubide juridikoaren mende daude:

- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 984/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta promozioa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ebaluazioa, promozioa eta titulazioa arautzen dituena.
- 217/2022 Errege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko ikasketak eta antolamendua ezartzen baitira.



- 118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharizan bereziak dituzten ikasleentzat eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.
- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- 1997ko uztailaren 9ko AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen dituena.

3. artikulua.- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak ebazpen honetan jasotako baliabideak baliozkotzeko edo onartzeko prozesua.

Jarraian, baliabide bakoitzaren **funtzeko** eta **prozedurazko betekizunak** zehazten dira.

3.1.- Hezkuntza berariaz sendotzeko proiektuak (HBSP)

Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak (HBSP) hezkuntzaren arloko ekintza bat dira, gizarte- edo kultura-egoera zailetan dauden edota eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduak.

3.1.1.- Adostasuna lortzeko betekizunak

HBSPak garatzen dituzten ikastetxeek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Jarraian zehazten den profila duten 8 ikasle izatea gutxienez:
- DBHko 1. mailan matrikulatutako 13 edo 14 urteko ikasleak, proiektua eskatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehenago adin hori bete badute.
 - DBHko 2. mailan matrikulatutako 14 urteko ikasleak, proiektua eskatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehenago adin hori bete badute, eta egoera hauetako batean badaude:
 - eskolan atzerapen handia izatea, batez ere arlo instrumentaletan, eta atzerapen hori gizarte-egoera kaltetuetan egotearekin loturik egotea.
 - eskolara egokitzeko arazoak izatea, eta sarritan ikasketetan atzeratuta ibiltzea.



- DBHko 2. mailan matrikulatutako 13 urteko ikasleak, guztiz justifikatutako arrazoiengatik (beste sistema batean eskolatuak, egokitze-arazoengatik sustapena...), errepikatu ez dutenak eta arlo instrumentaletan hutsune handiak dituztenak.
 - Salbuespen gisa, DBHko 2. mailan matrikulatutako 15 urteko ikasleak ere sar daitezke programan, apartatu honetan zehaztutako baldintza beretan, baldin eta irakasleek uste badute ezin direla DBHko 3. mailara igaro eta ez daudela beste prestakuntza-ibilbide batean hasteko moduan.
- b) Esku hartzeko proiektuaren balorazioan gutxieneko puntuazioa lortzea.
- c) Proposatzen diren jardueren ardura hartuko duten irakasle egonkorrak izatea.

3.1.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea eta modua.

Ikastetxe eskatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

1.- Proposatutako ikasleen zerrenda.

2.- Proiektu pedagogikoa.

3.- Erantzukizunpeko adierazpena, honako betebeharrak hauek betetzen direla egiaztatzeko:

- Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) edo eskola-kontseiluak hezkuntza indartzeko proiektua onartu du.
- Ikastetxeko OOGk edo eskola-kontseiluak proiektua ikastetxearen urteko planean txertatzeko konpromisoa hartzen du.
- Proiektua emandako jarraibideak betez garatzeko konpromisoa hartzen du ikastetxeak.
- Gurasoek edo ikasleen tutoretza duten pertsonak eskubidea dute ikasleen parte-hartzeari buruzko informazioa jasotzeko eta entzunak izateko.
- Eskararekin batera aurkeztutako dokumentuetan adierazitako datuak egiazkoak direla dioen adierazpena.

Urtero, baliabidearen eskaera aurkezteko eta behar den dokumentazioa eransteko eskatuko zaie ikastetxeei.

Eskararak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Hezkuntza Saileko webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Eskabidea eta dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko dira, Hezkuntza Sailak horretarako duen aplikazioaren bidez.



3.1.3.- Aurkeztutako eskabideen tratamendua

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak eskabideko dokumentazioa aztertuko du, eta egiaztatuko du proposatutako ikasleak egokiak direla.

Era berean, proiektuaren kalitatea baloratuko du, eta aurkeztutako proiektuari puntuazio jakin bat emango dio, baremo hau kontuan izanda: ingurune ahuleko ikastetxea izatea (Hezkuntza Konplexutasunaren Indize (HKI) oso altuko edo altuko ikastetxea izatea), ikastetxea Eraldatzen Programaren barruan egotea (sare publikoko ikastetxeak soilik), ikasle bekadunen ehunekoa, eta DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa. Baremoa aplikatu ostean lortutako puntuazioaren arabera esleituko dira baliabideak, agortzen diren arte.

Berdinketa badago, irizpide hauek erabiliko dira berdinketa hausteko, adierazitako hurrenkeran: Eraldatzen Programako ikastetxea izatea (ikastetxe publikoak soilik), Hezkuntza Konplexutasunaren Indize (HKI) oso altuko edo altuko ikastetxea izatea, proiektuaren balorazioan puntuazio handiena izatea, eta bekadunen ehunekoa.

3.1.4.- Adostasun-proposamenak

Jasotako informazioa oinarri hartuta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak behin betiko adostasun-proposamena egingo du.

Proposamen horretan, gehienez, bi irakasle esleituko dira ikastetxe bakoitzeko. Itunpeko sare pribatuko ikastetxeei esleitutako irakasleen guztizko kopurua inoiz ez da izango sare publikoko ikastetxeei esleitutakoa baino handiagoa.

3.1.5.- Adostasunak formalizatzea eta argitaratzea

Ikastetxe publikoen adostasun-proposamenak elektronikoki jakinaraziko dira eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira.

Itunpeko ikastetxeen kasuan, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari helaraziko dizkio adostasun-proposamenak, ofiziozko proposamenean sar ditzan eta itunpeko ikastetxeei jakinaraz diezaien.

Salbuespen gisa, 22-23 ikasturterako, itunpeko ikastetxeek administrazioaren proposamen bat jasoko dute, 2021-2022 ikasturteko egoerarekin jarraitzeko. Ikastetxeek proposamen hori onartu edo aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskatutako dokumentazioa erantsita.

3.1.6.- Adostasunaren xede den ikastetxearen eta titularraren betebeharrak

Ikastetxeak eta haren titularrak nahitaez bete behar dituzte 2. artikuluan aipatzen den araubide juridikotik eratorritako eskakizunak, bai eta Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuei buruzko araudi espezifikoan ezarritakoak ere. Besteak beste, eta denak aipatzeko asmorik gabe, honako hauek:



- Eskola inklusiboko planteamendu baten barruan garatzea proiektua, ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioetatik abiatuta, ikastetxeko ikasleen aniztasunari globaltasunez eta batera erantzunda, eta itxaropen handiak sortzea hartzaile diren ikasleengan. Hau da, ezingo ditu deialdi honen mendeko ikasle guztiak talde bakarrean bildu/sartu; aitzitik, deialdi honi lotutako aparteko baliabideak erabiliko ditu ohiko ikasgelan antolamendu- eta metodologia-aldaketak egiteko. Esleitutako baliabidea ez da inola ere erabiliko ratioak jaisteko edo programako ikasleentzat talde eta saio espezifikoak sortzeko, banaketa heterogeneoetan izan ezik, hizkuntzetako komunikazioa lantzeko.
- Programaren jarduketak, baita ohiko eta ezohiko baliabideak ere, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratzea, programaren hartzaile diren ikasleei arreta berezia emanez.
- Metodologia aktiboak eta estrategia inklusiboak erabiltzea, hala nola ikasgaiak arloka antolatzea, eta taldeko irakasle-kopurua murriztea, hau da, irakasle bakoitzak ikasgai bat baino gehiago ematea; bi irakasle ikasgelan; talde interaktiboetan lan egitea; solasaldi dialogikoak; tutoretzadun liburutegia; ikaskuntzaren elkarlaneko antolaketa; ICTak erabiltzea ikaskuntzak aberasteko... horrelako estrategiek ez dute inola ere eragingo programako ikasleentzat taldeak eta saioak berariaz sortzea, banaketa heterogeneoei dagokienez izan ezik.
- Proiektuaren hartzaile diren ikasleei talde naturalaren barruan banakako arreta emateko neurriak antolatzea (banakako tutoretzak, berdinkideen arteko tutoretzak, kontratu pedagogikoak, ikasle enbaxadoreak, babesak...).
- Irakasle guztien arteko koordinazioa bermatzea, bai bertikala bai horizontala; batez ere, proiektuaren xede diren ikasleak dauden taldeekin harremanak izango dituzten irakasleen arteko koordinazioa.
- Senideen harremana eta parte-hartzea lantzea, eta haien prestakuntza ahalbidetzea, eta ikasleekin elkarrekintzan dauden inguruko eragileekin ere koordinazioa sustatzea.
- Irakasleen barneko prestakuntza antolatzea (tutoreak, ikasketa-buruak, orientazioa...).
- Urriaren bigarren hamabostaldirako, ikasle bakoitzak bere Banakako Jarduketa Plana izango du, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dena. Plan horrek ikasle bakoitzaren egoera pertsonala aintzat hartuko du, eta datu hauek jaso behar ditu, gutxienez:
 - Ikaslearen hezkuntza-premien deskribapena,
 - Ikasgela hainbat arlotan antolatzeko proposamena, ikaskuntzak indartzeko eta bizkortzeko (noiz, nola, nork ...)
 - Tutoretza pertsonalizatua (nork, noiz, zertarako...),
 - Derrigorrezko ordutegitik kanpo hezkuntza indartzeko proposamenak (BIDELAGUNA, arratsaldeko tutoretzak ... noiz, nola),
 - Senideekiko harremana,
 - Planaren jarraipena eta ebaluazioa.



- Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikaslearen irakasle-taldeak banakako planaren balorazioa egingo du ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz. Balorazio horretan, hezkuntza-prozesua jarraitzeko gomendioak adieraziko ditu.
- Horrekin batera, saio horretan aztertuko da programaren emaitzek helburuekiko lortu duten betetze-maila, eta ikastetxeak hurrengo ikasturterako egiten dituen hobekuntza-proposamenak, proiektuaren garapenerako orientazioetan ezarri diren jarduera-ildoekin bat etorriz. Hori guztia ikastetxeak egin behar duen memorian jasota geratuko da.
- Ikastetxeek, epe jakin batean, justifikazio-agiriak beteko dituzte, erabilgarri dauden plataforma digitaletan argitaratzen diren ereduaren arabera.
- Hezkuntza Ikuskaritzak, proiektua justifikatzen duten ikasleek banakako jarduketa-planak dituztela egiaztatzeaz gain, jarraipena egingo du ikastetxeetan, ziurtatzeko ikastetxeak betetzen dituela proiektuan parte hartzeak dakartzan baldintzak eta betebeharrak.

3.2.- PT irakasleak

Ebazpen honetan aipatzen diren PT irakasleak laguntza-baliabide bat dira, eta haien xedea da Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gela arruntetan eskolatuta egonda hezkuntza-premia bereziak (HPB) eta hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleak artatzea.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak, eskura dituen datuetatik abiatuta, ikastetxeek PT irakasleei dagokienez dituzten beharrak baliozkotzen ditu. Premia horien ondorioz, lanaldi osoko edo lanaldi erdiko PT plazak sortzen dira.

3.2.1.- PT irakasleak baliozkotzeko baldintzak eta irizpideak

Ikastetxeak HPBak edo beste HLBP batzuk dituzten ikasleak eskolatu behar ditu, zeinek, Berritzeguneko HPBko aholkularitzaren ebaluazio psikopedagogikoaren arabera, honakoa eskatzen baitute: banakako jarduketa-plan bat eta pedagogia terapeutikoko irakasle espezializatuen laguntza, intentsitate mugatuarekin, zabalarekin edo orokortuarekin.

Ikastetxe batek zenbat PT irakasle behar dituen kalkulatzeko, kontuan hartzen dira behar hori duten ikasle kopurua eta W67 aplikazio informatikoan (ebaluazio psikopedagogikoen emaitzak jasotzen ditu) erregistratutako laguntzen intentsitate-maila. Hala, kalkuluen arabera:

- Haur eta Lehen Hezkuntzan, PT irakasle bat behar da intentsitate handiko edo orokorreko premiak dituzten 4-6 ikasleri edo intentsitate mugatuko premiak dituzten 8-12 ikasleri erantzuteko.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, PT batek intentsitate handiko edo orokorreko premiak dituzten 4-5 ikasleri ematen die arreta, edo intentsitate mugatuko premiak dituzten 8-10 ikasleri.



3.2.2.- PT irakasleak baliozkotzeko prozedura, esleitze edo finantzatze aldera

Laguntza-baliabideen aurreikuspenak egiteko garaian, lurralde-ordezkaritzek Berritzegune bakoitzeko HPBetako aholkularitzekin kontrastatzen dituzte W67 aplikazioan jasotako laguntza-intentsitateen datuak; eta, aurreko atalean adierazitako irizpideak eta ikastetxeen testuinguru-aldagaiak kontuan hartuta, PT baliabideen aurreikuspena egiten dute.

Ordezkaritzen baliabide-aurreikuspenak Zerbitzu Zentralek baliozkotzen dituzte; baliabideak esleitzeko irizpideak hiru lurraldeetan eta bi sareetan (publikoa eta itundua) modu berean aplikatzen direla gainbegiratzen eta zaintzen du zerbitzu horrek.

a) PT baliabidea esleitzea irakaskuntza publikoan

PT baliabideen aurreikuspenetik abiatuta, Lanpostuen Zerrenda egiten da. Ikastetxe publikoek alegazioak jar ditzakete esleitutako baliabideekin ados ez badaude, eta alegazio horiek arrazoituta ebazten dira.

Aurreikuspenak egiten diren unetik ikasturtearen hasierara bitartean, PT baliabidea behar duten ikasleen funtsezko altak edo bajak gertatzen badira, ikastetxeko baliabideak gehitu edo murriztuko dira.

b) PT baliabidea finantzatzea irakaskuntza itunduan

Lehen aldiz, 2022/2023 ikasturtean, ez da gela irekirik (PTko gelarik) itunduko, eta horren ordez PT irakasleak hitzartuko dira; beraz, ez da beharrezkoa izango gelak baimenduta egotea. Aldaketa hori egin da ulertzen delako PT irakasleek irakasle arruntekin lankidetzan jardun behar dutela ikasgelako programazioa egokitzeko, eta, ahal dela, hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea eskolatuta dagoen gelan esku hartu behar dutela.

Prozedura hasteko, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak ofiziozko proposamen bat aurkeztuko du PT irakasleak ituntzeko, egindako aurreikuspenen arabera. Ikastetxeek proposamen horri buruzko iritzia eman behar dute Hezkuntza Sailaren hezkuntza-itunen aplikazioan. Ikastetxea proposamenarekin ados badago, berariaz onartu beharko du. Ez bazaio egokia iruditzen, eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori baloratzeko informazio lagungarria erantsi. Jasotako informaziotik abiatuta, eskaeraren aldeko edo kontrako txosten arrazoitua egingo du Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak, eta txosten hori erabiliko da hitzarmenari buruzko behin betiko erabakia hartzeko.

Ikasturtearen hasieran, urrian, itunaren ofiziozko aldaketa egingo da. Horretarako, egiaztatuko da ea ikasleen funtsezko alta edo bajarik izan den —PT baliabideen zuzkidura handitzea edo murriztea ekar dezake horrek—, eta itundutako baliabideak doituko dira.



3.3.- Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE)

Ebazpen honetan aipatzen diren hezkuntza-laguntzako espezialistak laguntza-baliabide bat dira, eta haien xedea da autonomiarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak (HPB) izanda gela arruntetan edo zereginen ikaskuntzarako geletan eskolatuta dauden 21 urtetik beherako ikasleak artatzea.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak, eskura dituen datuetatik abiatuta, ikastetxeek HLEei dagokienez dituzten baliabide-beharrak baliozkotzen ditu. Premia horien ondorioz, lanaldi osoko edo lanaldi erdiko HLE plazak sortzen dira.

3.3.1.- HLEak baliozkotzeko baldintzak eta irizpideak

Ikastetxeak desgaitasunen edo jokabide-nahaste larrien ondoriozko HPBak dituzten ikasleak eskolatu behar ditu, zeinek, Berritzeguneko HPBko aholkularitzaren ebaluazio psikopedagogikoaren arabera, honakoa eskatzen baitute: HLEen laguntza, beren autonomia eta curriculumerako sarbidea sustatzeko.

Ikastetxe bakoitzak zenbat HLE behar dituen kalkulatzeko, kontuan hartzen dira behar hori duten ikasle kopurua eta eskatzen duten laguntzaren intentsitate-maila (mugatua, zabala, orokortua edo intentsiboa). Laguntzen intentsitatea W67 aplikazio informatikoan erregistratuta dago. Aplikazio horretan ebaluazio psikopedagogikoen emaitzak jasotzen dira.

Kalkuluen arabera, HLE batek intentsitate mugatuko, zabaleko edo orokortuko premiak dituzten 2-4 ikasle arta ditzake. Oso kasu berezietan, mugitzeko desgaitasun oso larriagatik eta autonomia erabat galdu izanagatik, baliteke arreta intentsiboagoa behar izatea.

3.3.2.- HLEak baliozkotzeko prozedura, esleitze edo finantzatze aldera

Laguntza-baliabideen aurreikuspenak egiteko garaian, lurralde-ordezkaritzek Berritzegune bakoitzeko HPBetako aholkularitzekin kontrastatzen dituzte W67 aplikazioan jasotako laguntza-intentsitateen datuak; eta, aurreko atalean adierazitako irizpideak eta ikastetxeen testuinguru-aldagaiak kontuan hartuta, EAE baliabideen aurreikuspena egiten dute.

Ordezkaritzen baliabide-aurreikuspenak Zerbitzu Zentralek baliozkotzen dituzte; baliabideak esleitzeko irizpideak hiru lurraldeetan eta bi sareetan (publikoa eta itundua) modu berean aplikatzen direla gainbegiratzen eta zaintzen du zerbitzu horrek.

a) HLE baliabidea esleitzea irakaskuntza publikoan

HLE baliabideen (lan-kontratudun langileak) aurreikuspenak ikastetxeei jakinarazten zaizkie, eta batzorde paritarioan ere aurkezten dira. Sindikatuek alegazioak egin ditzakete, eta ikastetxeek beren iritzia azaldu, uste baldin badute aurreikusitako zuzkidura hori ez dela nahikoa. Sindikatuen alegazioak eta ikastetxeen eskaerak



arrazoituta ebatzi ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak hurrengo ikasturterako lanpostuak betetzen ditu.

Aurreikuspenak egiten diren unetik ikasturtearen hasierara bitartean, HLE baliabidea behar duten ikasleen funtsezko altak edo bajak gertatzen badira, ikastetxeko baliabideak gehitu edo murriztuko dira.

b) HLE baliabidea finantzatzea irakaskuntza itunduan

2021/2022 ikasturtera arte, HLEak dirulaguntzen araubidearen bidez finantzatu dira. 2022/2023 ikasturtetik aurrera, laguntzako langile osagarri gisa itunduko dira.

Prozedura hasteko, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak ofiziozko proposamen bat aurkeztuko du HLEak ituntzeko, egindako aurreikuspenen arabera. Ikastetxeek proposamen horri buruzko iritzia eman behar dute Hezkuntza Sailaren hezkuntza-itunen aplikazioan. Ikastetxea proposamenarekin ados badago, berariaz onartu beharko du. Ez bazaio egokia iruditzen, eskaera bat egin beharko du, eta eskaera hori baloratzeko informazio lagungarria erantsi. Jasotako informaziotik abiatuta, eskaeraren aldeko edo kontrako txosten arrazoitua egingo du Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak, eta txosten hori erabiliko da hitzarmenari buruzko behin betiko erabakia hartzeko.

Ikasturtearen hasieran, urrian, itunaren ofiziozko aldaketa egingo da, datu errealetara egokitzeke. Horretarako, egiaztatuko da ea ikasleen funtsezko alta edo bajarik izan den —HLE baliabideen zuzkidura handitzea edo murriztea ekar dezake horrek—, eta itundutako baliabideak doituko dira.

3.4.- Curriculum anitzeko programak (CA)

Curriculum anitzeko programak aniztasunari erantzuteko neurri bat dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren mailan eskolatuta egonda ikasteko edo eskolara egokitzeke zailtasun nabarmenak nahiz ikaskuntza-erritmo desberdinak dituzten ikasleei zuzenduta daude (ez dira hor sartzen ikasteko ahalegin-faltaren ondoriozko arazoak). Ikasle horiei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen laguntzea dute xede.

3.4.1.- Adostasunerako betekizunak

Curriculum anitzeko proiektuak garatzen dituzten ikastetxeek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Jarraian zehazten den profila duten 8 ikasle izatea gutxienez, eta 15 gehienez:
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila amaituta hirugarren mailara igarotzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasturte berean beste urte batez egoteak ez diola mesederik egingo ikaslearen bilakaera akademikoari.



- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila amaitu duten eta aurreko paragrafoan aipatutako egoeran dauden ikasleak programaren lehen urterako proposatu ahal izango dira.
 - Salbuespen gisa, programarako proposatu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak, baldin eta irakasle-taldeak uste badu neurri horri esker titulua lortu ahal izango duela aurreikusitako iraupen-mugak gainditu gabe (salbuespenez, 19 urte bete arte).
- b) Ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du programan sartzeko proposatutako ikasle guztiek badutela Orientazio Departamentuaren ebaluazio akademikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta dagokion txostena.
- c) Programan sartu diren ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei informazioa emateko eta entzuteko konpromisoa hartzen du ikastetxeko zuzendaritzak.

3.4.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea eta modua.

Ikastetxe eskatzaileak jarraian adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1.- Proposatutako ikasleen zerrenda.
- 2.- Ikasle bakoitzaren ebaluazio psikopedagogikoa.
- 3.- Orientazio Departamentuak emandako orientazio-aholkua.
- 4.- Oinarrizko programa.
- 3.- Erantzukizunpeko adierazpena, honako betebeharrak hauek betetzen direla egiaztatzeko:
 - Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) edo eskola-kontseiluak hezkuntza indartzeko proiektua onartu du.
 - Ikastetxeko OOGk edo eskola-kontseiluak proiektua ikastetxearen urteko planean txertatzeko konpromisoa hartzen du.
 - Proiektua emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzen du ikastetxeak.
 - Gurasoei edo ikaslearen tutoretza duten pertsoneri haren parte-hartzearen berri eman zaie eta entzun egin zaie.
 - Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuetan adierazitako datuak egiazkoak direla dioen adierazpena.

Urtero, baliabidearen eskaera aurkezteko eta behar den dokumentazioa eransteko eskatuko zaie ikastetxeei.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, Hezkuntza Saileko webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera.



Eskabidea eta dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko dira, Hezkuntza Sailak horretarako duen aplikazioaren bidez.

3.4.3.- Aurkeztutako eskabideen tratamendua.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak eskabideko dokumentazioa nahiz ikastetxe eskatzaileen ezaugarriak aztertuko ditu, eta egiaztatuko du proposatutako ikasleak egokiak direla. Ondoren, proiektu horretarako dituen baliabideak kontuan hartuta, adostasun-proposamena egingo du.

Zuzendaritza horrek txostenak eta/edo laguntza eska diezaieke hezkuntza-gaietan aditu diren pertsona edo aholkulariei, aurkeztutako eskaerak behar bezala ebaluatu eta aztertu ahal izateko.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak matrikulazioa errazteko mekanismoak abiaraziko ditu ikasle batzuk programarako proposatu arren haien taldea onartzen ez bada, Curriculum Anitzeko taldeen plangintzaren arabera eta baliabide horren eskaintza eskola-maparen eremu guztietan orekatzeko premia kontuan izanda.

Itunpeko sare pribatuko ikastetxeei esleitutako irakasleen guztizko kopurua inoiz ez da izango sare publikoko ikastetxeei esleitutakoa baino handiagoa.

3.4.4.- Adostasun-proposamenak

Jasotako informazioa oinarri hartuta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak behin betiko adostasun-proposamena egingo du.

Proposamen horretan, gehienez, bi irakasle esleituko dira ikastetxe bakoitzeko. Itunpeko sare pribatuko ikastetxeei esleitutako irakasleen guztizko kopurua inoiz ez da izango sare publikoko ikastetxeei esleitutakoa baino handiagoa.

3.4.5.- Adostasunak formalizatzea eta argitaratzea

Ikastetxe publikoen adostasun-proposamenak elektronikoki jakinaraziko dira eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira.

Itunpeko ikastetxeen kasuan, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari jakinaraziko dizkio adostasun-proposamenak, ofiziozko proposamenean sar ditzan eta itunpeko ikastetxeei jakinaraz diezaien.

Salbuespen gisa, 22-23 ikasturterako, itunpeko ikastetxeek administrazioaren proposamen bat jasoko dute, 2021-2022 ikasturteko egoerarekin jarraitzeko. Ikastetxeek proposamen hori onartu edo aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskatutako dokumentazioa erantsita.

3.4.6.- Adostasunaren xede den ikastetxearen eta titularraren betebeharrak.

Ikastetxeak eta haren titularrak nahitaz bete behar dituzte 2. artikuluan aipatzen den araubide juridikotik eratorritako eskakizunak, bai eta Curriculum Anitzeko Programei buruzko araudi espezifikoan ezarritakoak ere. Besteak beste, eta denak aipatzeko asmorik gabe, honako hauek:

1. Oro har ezarritakoaz bestelako curriculum-antolaketa bat beharko dute programa horiek. Diziplinarteko esparru edo proiektuen bidez garatu ahal izango dira. Bi kasuetan, programan parte hartzen duten ikasleen taldeko eta banakako tutoretza indartuko da, eta programari dagokion Tutoretza Planean islatuko da.
 - a) Diziplinarteko proiektuen bidez antolatuz gero, ikasleek talde arruntetan emango dituzte hirugarren eta laugarren mailako ikasgai guztiak.
 - b) Esparruka antolatutako programa erabiliz gero, gutxienez berriazko bi esparru zehaztu beharko dira. Honako osagaiak izan beharko dituzte:
 - Hizkuntza- eta gizarte-esparrua: bere baitan jasotzen ditu Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza, eta Geografia eta Historia ikasgaien oinarritzko alderdiak.
 - Esparru zientifiko-teknologikoa: bere baitan jasotzen ditu Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Teknologia eta Digitalizazioa ikasgaien oinarritzko alderdiak, eta laugarren mailako aukerako ikasgaiak.
2. Esparruka antolatutako programetan, ikasleek, gutxienez ere, 23 ordu eskainiko dizkiete hizkuntza-gizarte eta zientzia-teknologia arloei. Esparruetakoak ez diren ikasgaiak talde arruntetan (nolanahi ere, gutxienez 3 arlo) edo berriazko taldetan ikasiko dira.
3. Irakasle batek edo gehiagok emango du arlo bakoitza. Irakasle horietako batek ikasleen banakako tutoretza hartuko du bere gain, astean bi orduz gutxienez.
4. Curriculum anitzeko programetan dauden ikasleak etaparen helburuei eta programa bakoitzean finkatutako ebaluazio-irizpideei jarraiki ebaluatuko dira. Nahitazkoa izango da lehenengo mailatik bigarrenera igarotzea (ikastetxeko zuzendaritzak eta hezkuntza-ikuskaritzak behar bezala arrazoitutako salbuespenak salbuespen; adibidez, ospitaleratzeak edo iraupen luzeko etxeko susperraldiak, ikastetxetz aldatzea...).
5. Oinarritzko programaren edukia prestatzeko:
 - a) Ikastetxeak zehaztu egin behar du zer metodologia (ikasgaiak esparruka antolatzeko proposamen zehatza), eduki eta ebaluazio- eta kalifikazio-irizpide erabiliko dituen, ikasleek oinarritzko gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko.
 - b) Taldeko nahiz banakako tutoretzak nola antolatuko diren azaldu behar du, eta koordinazio-guneak ere zehaztuko ditu, ikasleen jarraipena egiteko eta parte hartzen duten irakasleen artean programa garatzeko.
 - c) Programaren edukiarekin bat datozen programazio didaktikoak egin beharko ditu.



- d) Irizpideak ezarriko ditu ikasleak taldekatzeko, guneak antolatzeko eta taldearen nahiz programan parte hartzen duten irakasleen ordutegiak zehazteko.
6. Jarduketa Plan Pertsonalizatuari dagokionez:
Plana egiteko, irakasleek, hasiera batean, funtsezko edukiak eta ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak eta prozedurak zehaztuko dituzte. Ikasturtean zehar, plan hori osatu eta egokitu egingo da banakako tutoretzen bidez eta ikasleen beraien partaidetzarekin; irakasle-taldeak beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egingo ditu, ikasleak oinarrizko gaitasunak lor ditzan.
7. Ikastetxeek, urriaren 1a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko dute proiektuaren hartzaile izango diren ikasleen behin betiko zerrenda, eta plataforma digitaletara igoko dute.
8. Ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatuko du ea bat datozen curriculum anitzeko programetarako proposatutako ikasleen zerrenda eta programa horietan benetan eskolatutako ikasleen zerrenda, ebazpen honetan ezarritako baldintzen arabera.
9. Era berean, ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dituzte programan parte hartzen duten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoak, orientazio-aholkuak, Oinarrizko Programak eta Banakako Jarduketa Planak.

3.5.- Eskolatzeko osagarriko programak (EOP)

1.- Eskolatzeko Osagarriko Programak aniztasunari erantzuteko aparteko eta aldi baterako neurri bat dira, eta gizarte-egoera bereziki zailean dauden edo eskolan egokitzeke zailtasun larriak dituzten ikasleei zuzenduta daude. Hain zuzen ere, ikasle horiek ezin dute hezkuntza-prozesu normalizaturik aurrera eraman, aipatutako inguruabarrak aldatzen ez diren bitartean. Ikasle horien laguntza-premia bereziak ezaugarri pertsonaletan edo eskola-historian oinarritu behar dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

2.- Unitate espezifikoen bidez, hazkunde pertsonalerako, ohiko sistemara berriro egokitzeke edo, geroago, Lanbide Hastapeneko prestakuntzara sartzeko erabilgarriak izango diren ikaskuntzak ematen zaizkie, helduaroan eta bizitza aktiboan txertatzeko gai izan daitezkeen, beren behar pertsonal eta sozialetara egokitutako curriculumarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren oinarrizko gaitasunei uko egin gabe. Nolanahi ere, curriculumeko arlo instrumentalak lehenetsiko dira, ikasleen beharretara egokitutako metodologia erabiliz.

3.- Salbuespenezko neurri gisa ere erabiltzen dira programok, eta espero ziren emaitzak lortu ez direla egiaztatu ostean ezartzen dira, behar bezala diseinatu eta planifikatutako zenbait esku-hartzeren ondoren (hezkuntza-osagaia duten prebentziozko esku-hartzeak, batetik, eta curriculumeko esku-hartzeak, bestetik, ohikoak nahiz apartekoak).



3.5.1.- Baimena lortzeko baldintzak.

1.- Hautemandako beharizanen arabera, Hezkuntza Sailak programa hau gauzatzeko baimena emango die ikastetxeei.

2.- Hauek dira ikastetxe bat baimentzeko bete beharreko gutxienerako baldintzak:

1.- Eskolatzeko Osagarriko Programa bat izatea, gutxienez honako hauek jasoko dituen:

- a) Oinarri pedagogikoak: helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazio-prozedurak.
- b) Prestakuntza-planaren eskema.
- c) Hezkuntza Sailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako adierazitako egutegiari egokitzen zaion egutegia.
- d) Ikasleak artatzeko asteko ordutegia.
- e) Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin koordinatzeko ordutegia.
- f) Ikaslearen koordinazio- eta jarraipen-plana, matrikulatuta dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta programa egiten duen ikastetxearen artean ezarritakoa, desberdina izanez gero, eta ikastetxe bakoitzeko erreferentziazko pertsonak zein diren zehaztuta.
- g) Orientazio-plana.
- h) Azpiegitura eta baliagarri izango diren giza baliabideak eta materialak.

2. Irakasle-talde espezializatua izatea, bai eta programa garatzeko behar diren instalazioak eta ekipamendua ere.

3. Programa irakasten duten irakasleek modu koordinatuan lan egingo duen irakaskuntza-talde bat osatuko dute. Honako hauek osatuko dute:

- a) Lanbide Heziketako irakasle tekniko bat edo dagokion sektorean egiaztatutako pertsona espezialista bat, Oinarrizko Lanbide Teknikak blokea irakatsiko duena.
- b) Unibertsitateko diplomaduna edo lizentziaduna den irakasle bat, Oinarrizko Prestakuntzako blokea irakatsiko duena: komunikazioaren eremua eta eremu zientifiko-teknologikoa.

4. Halaber, hezkuntza-taldeko kide izan ahalko dira Programan jarraitutasunez esku hartzen duten beste profesional batzuk ere (psikologoak, gizarte-hezitzaileak, gizarte-laguntzaileak, gorputz-hezkuntzako irakasleak).

5. Ikasleekin ohiko harremana duten langileek Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria izan behar dute, hau da, egiaztatu beharko dute ez direla kondenatuak izan epai irmoz sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituengatik, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua ezartzen duen moduan.



3.- Hezkuntza Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen ikasleak esleitu ahal izango ditu, baldin eta honako ezaugarri hauek betetzen badituzte:

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, 15 urte dituztenak gehienez programa hasten den urteko abenduaren 31n beteta.
- b) Ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean matrikulatuta egotea.
- c) Ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonaletan edo eskola-historian oinarritu behar dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

4.- Ikaslea programan sartzeko, berariaz onartu eta bete beharko dira 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 14. artikuluan ezarritako neurriak (Agindua, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik bestek baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat; agindu hori aldatzen duen 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak emandako idazkeraren arabera).

5.- Programa bakoitzak gutxienez 8 ikasle izango ditu, eta gehienez 15.

3.5.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea eta modua.

Aldez aurretik baimendutako ikastetxeek soilik eman ahal izango dituzte programa horiek.

Programa honen egungo plangintza aldatzen bada, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak dagokion prozesua iragarriko du ikastetxe berriak baimentzeko.

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak baimentze-prozesua iragarri gero, 3.5.1 atalean adierazitako baldintzak betetzeko eskatzen den dokumentazio berbera aurkeztu beharko da; besteak beste, honako hauek, gutxienez:

- a) Oinarri pedagogikoak: helburu orokorrak, metodologia eta ebaluazio-prozedurak.
- b) Prestakuntza-planaren eskema.
- c) Hezkuntza Sailak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako adierazitako egutegiari egokitzen zaion egutegia.
- d) Ikasleak artatzeko asteko ordutegia.
- e) Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxearekin koordinatzeko ordutegia.
- f) Ikaslearen koordinazio- eta jarraipen-plana, matrikulatuta dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta programa egiten duen ikastetxearen artean ezarritakoa, desberdina izanez gero, eta ikastetxe bakoitzeko erreferentziazko pertsonak zein diren zehaztuta.



- g) Orientazio-plana.
- h) Azpiegitura eta baliagarri izango diren giza baliabideak eta materialak.

3.5.3.- Baimen-proposamenak

Jasotako informazioa oinarri hartuta, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak behin betiko adostasun-proposamena egingo du.

3.5.4.- Adostasunak formalizatzea eta argitaratzea

Ikastetxe publikoen adostasun-proposamenak zuzenean jakinaraziko zaizkie ikastetxeei.

Itunpeko ikastetxeen kasuan, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari jakinaraziko dizkio adostasun-proposamenak, ofiziozko proposamenean sar ditzan eta itunpeko ikastetxeei jakinaraz diezaien.

3.5.5.- Adostasunaren xede den ikastetxearen eta titularraren betebeharrak.

Ikastetxeak eta haren titularrak nahitaez bete behar dituzte 2. artikuluan aipatzen den araubide juridikotik eratorritako eskakizunak, bai eta Eskolatzeko Osagarriko Programei buruzko araudi espezifikoan ezarritakoak ere. Besteak beste, eta denak aipatzeko asmorik gabe, honako hauek:

1.- Hiru hilean behin, gutxienez, programa horietan dauden ikasleen banakako jarraipena egingo da. Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastetxeko ikasketaburuak, programaren ardura duen taldekide batek eta dagokion Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietako aholkulari batek egingo dute jarraipena.

2.- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta Eskolatzeko Osagarriko Programaren arduradunek elkarrekin prestatuko dute ikasleen legezko arduradunei eman beharreko informazioa.

3.- Ikasle baten ikasketa-mailak eta baldintzek hala gomendatzen badute, ikastetxeko zuzendaritzari proposatu ahalko zaio ikasle hori berriz sartzea dagokion Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailan. Horren berri emango zaie familiari, ikasleari eta Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzari. Beraz, itxiztat emango da ikaslea programan sartzeagatik Burutza horretan irekitako espedienteak.

4.- Jatorrizko ikastetxeari dagokio bere ikasleen absentismo-protokoloa ezartzea; eta, horretarako, ikasleei Eskolatzeko Osagarriko Programa ematen dien ikastetxeak zorrotz eta berehala jakinaraziko ditu gorabehera guztiak.

5.- Ikaslearen jatorrizko ikastetxeko zuzendaritzak askotariko ekintzak bultzatuko ditu ikasleak harremanetan jarrai dezan bere ikastetxearekin eta ikaskideekin (eskolaz kanpoko jarduerak, bidaiak, jaiak, ikasleentzako informazioa...).

6.- Eskolatzeko Osagarriko Programak dauzkaten ikastetxeetan, programa horien jarraipena eta ebaluazioa egingo da, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 18. artikuluko



2. apartatuan ezarritakoaren arabera. Artikulu horrek dioenez, ikastetxeak programaren ebaluazio-txostena egin behar du, eta horretarako maiatzean deitutako berariazko bilera batean aurkeztuko da txosten hori.

7.- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Arduradunek egingo dute bilerarako deia, eta honako hauek izango dira partaide: programak egiten diren ikastetxeko ordezkaria, Osabidezko Hezkuntzako zerbitzuburua, ikastetxea dagoen lurraldeko Osabidezko Hezkuntzako unitateko teknikaria, eskualdeko ikuskari bat eta dagokion Berritzeguneko kide bat.

8.- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Arduraduna edo haren ordezkaria izango da bilerako burua. Batzorde horren txostena Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari aurkeztuko zaio.

4. artikulua.- Ikasturtea hasi ondoren laguntza-premia handiak dituzten ikasleak sartzea edo gerora sortutako premiak.

Ikasturtean zehar ikasleei egindako ebaluazio psikopedagogikoen, laguntzen intentsitate-aldaketek edo ikasturtean zehar ikasle berriak sartzeak, hasiera batean, ez dute ekarriko aurretik planifikatutako eta ikasturtearen hasieran esleitutako edo hitzartutako baliabideak berrikustea. Ikastetxeak ikasle berriari arreta emateko beharrezko doikuntzak eta ordutegi-aldaketak egin beharko ditu. Era berean, irakasleek ikasgelako programazioa ikasle berriaren laguntza-premietara egokituko dute. Ebaluazio berriak eta aurretik egindako balorazioen aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturteari dagokion esleipena zehazteko.

Hala ere, salbuespen gisa, eta honako arrazoi hauek direla medio, ikastetxe publikoek eta itunduek hezkuntza-laguntzako langileen (PT edo HLE) esleipena berrikusteko eskatu ahal izango dute, ohiz kanpo eta ikasturte berean ondorioak izateko:

- Ikasturtean zehar intentsitate handiko laguntza behar duten ikasleak sartzen badira. Ikastetxean ikasle berriak sartzeak justifikazio bat izan behar du: beste herri batera bizitzera joan izana edo euskal hezkuntza-sisteman sartzea. Ikastetxeak, bere eskaeran, esleitutako bitartekoak berrantolatu dituela eta hala ere ikasle horri ordutegi-tarteren batean arreta ematea ezinezkoa zaiola justifikatu beharko du.
- Gerora sortutako eta salbuespenezko arrazoiengatik, ikastetxeari esleitutako baliabide-hornidura argi eta garbi nahikoa ez bada ikasle jakin batzuen HPBei erantzuteko, eta horrek arriskuan jartzen badu ikasle horien edo beren inguruko osotasuna.

Aparteko baliabide horiek eskatzeko, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak ezarritako prozedura honi jarraituko zaio: 1) ikastetxeak aparteko baliabidea eskatuko dio bere lurralde-ordezkaritzari, 2) ordezkariak txostenak



eskatuko dizkie Berritzeguneari eta ikuskaritzari, 3) baliabidea ezinbestekoa dela uste badu, Zerbitzu Zentralei helaraziko die eskaera, eta haiek hartuko dute azken erabakia.

Xedapen gehigarri bakarra

Itunpeko ikastetxe pribatuei dagokienez, itunen aginduan ezarritako prozedura aplikatuko da ebazpen honetan jasotako baliabideak hitzartzeko.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA